

b.e.r.r.i.a.k

z.i.r.i

ARNALDO OTEGI

HBko bozeramailea



«HBko sektore eszeptikoei
zabaltasunaren ildoan lan
egitera dei egiten diet»

ARGIA

ELIZARDO SANCHEZ

Kubako Giza Eskubideen eta
Adiskidetzaren aldeko
Batzordeko lehendakaria



«Castroren gobernua oso
gustura egoten da krisi
egoeretan»

EL PAIS

JORGE PERUGORRIA

Aktore kubatarra



«Kuban 'glamour'-eko izar
bakarra dago, eta
gainontzekoak bigarren
mailako aktoreak gara»

LA VANGUARDIA

MANOLO SERRANO

Alaveseko aurrelaria



«Garaipena historikoa izan
zen, baina errealitatea Ligan
dago, eta ezer gutxirako balioko
du ez badugu irabazten
igandean Eibarren aurka»

DEIA

i r i t z i a

zuzendaritari

Abenduko kamioizaleak

Euskara ikasleak gara. Atzizkiei buruzko bi artikulua interesgarri irakurri ditugu Euskaltegia. Kazetariak kamioizale hitza gaizki erabiltzen dutela esan zuen Xanti Begiristainek, kamioilari erabili behar dutela kamionero adierazteko, zeren eta, adibidez, pilotaria, pilotazalea eta pilotagilea ez dira gauza bera. Gainera, hiztegiaren kamioilari besterik ez dela agertzen zioen.

Iratxe Goikoetxeak pilotaren kasuan arrazoia duela erantzun zion, baina arau horiek ez direla beti betetzen; esate baterako, arrantzale-k bizimodua adierazten duela eta ez zale-tasuna. Hiztegiek ez dutela beti asmatzen esan zuen, euskarak hitz berri asko dituelako eta berak erabiltzen duen hitza ez delako agertzen: kamioi-dun.

Hasieran, Xantik idatzi zuena irakurtzean, arrazoia zuela pentsatu genuen, baina Iratxe-renak zalantzak sortu zitkigun. Jakinahiak jota hiztegi-tara jo dugu eta hau aurkitu dugu: 2000 hiztegiak aukera bakarra dakar, kamioilari; Elhuyar entziklopedikoak, berriz, kamioilari eta kamioizale; eta 3000k, aldiz, hiru aukerak dakartza: kamioilari, kamioizale eta kamioi-dun. Beraz, neurri batean, biek zuten arrazoi eta hiru aukerak erabil daitezke; izan ere, bakoitzak erabiltzen duen hitza bere inguruko euskararen araberakoa da.

● Javier Golzarri Agirresarobe

(Xepelar AEK Euskaltegiako ikasleak)
ORERETA (GIPUZKOA)

Eibarko futbol taldeko zuzendaritza taldeari

Ustekabe tamalgarria izan dugu gaur Ipuruara hurbildu garenean, bertan ez baitugu zuek Juvenil edo gazteen-tzako eskaintzen duzuen sarrerarik aurkitu.

Leihatilan zeudenek gure aukera bakarra bi mila pezetakoak erostea zela zioten, ume-endako sarrerak ere agortuak baitzeuden. Gertatutakoa ikusita, baliteke eibartar gazte-ok onartu behar izatea Eibar taldea animatzea ez dagoela gure patrikaren esku.

Etorkizunerako gauza bat eskatu nahi genizuke, inolako deialdirik egiten baduzue jendea Ipuruara eraman nahian, mesedez ahaztu guztaz, gazteok, etorkizunaz, bi mila pezetako sarreraren prezioa ezinezkoa baita guretzat.

Tribuna berria estreinatu dugunez (beno, duzuenez), Ipuruako zelaia betetzeko gazte-endako sarrera bereziak eskaintzeko ideia proposatzen dizuegu, gazte txartela edo ikasle txartela eramanez gero, sarrerak merkeagoak izatea, zazpiehun pezeta inguruan.

● Mikel Treviño

(eta beste 12 sinadura)

EIBAR (GIPUZKOA)

Legazpiko hankasartze itzela

Hankasartze itzela izan dela uste diat bai, baina hik irakurri huan agiri hura. Hirekin ari nauk, Jon Imanol Ormazabal. Hankasartze itzela esaten diat, horrelako agiriekin, askotan esan dugun bezala, etsaiari indarra ematea besterik ez delako lortzen. Esaten duk ere udaletxea dela herriarrek dugun kontakturik zuzenena. Gogoratuko diat, ongi asko dakian bezala, hortik atera ditugun ondorenak prepotentzia osoz betetako jokaerak besterik ez direla izan. Beti geratu izan duk agirian udalaren partetik aurrerapausorik emateko borondate eza. Honekin esan nahi diat, udaletxea ere beste edozein leku bezala dela, gure aurka gogor jarduten duen leku bat.

Hau esanik, uste diat horrelako adierazpenekin lortzen den bakarra dela gure iritzia ezker abertzaleak daraman borroka eta borrokalarien aurkako iritzi bezala azaltzea komunikabideetan. Uste diat hori hire aldetik behintzat ez dela horrela, nahiz eta ez ukatu Legazpiko Herri Batasunak Zabaletismo pixka bat dagoenik. Zerbaitetarako egin zian bere bueltatxo afari-solasaldi hartan.

Jon Imanol, oso ospetsua egin haiz. Agiri hori zabaldu ondoren etsaiaren irratia nazionalen hala entzun diat, klonatu egin behar-kokoa hirekin, hi bezalako asko izateko. Konturatzen haiz nola aprobeztatzen duten

beraien alderako. Guk badakigu zenbat irakurri ditugun udaletxe horretan: bai pendentzia, autodeterminazioa, presen-erak, presoak Euskal Herrira, Amn- Mahai Nazionaleko kideen atxilotze-espertxeratzea, euskararen arabilpena... beste eta hainbeste agiri eta askotan ere herriko kroniketan ere azaldu. Eta orain batean, denon ahotan habil. Zer poza dioan etsaiari. Nire ustez atzerapauso izan da Euskal Herria askatzeko daram- guda honetan. Pauso honekin lortzen du- da espainolek nahi duten bezala ager- sumiso, sumiso. Edo alkatEAK dioen insumiso, inongo ejerzitotik gabe, indar- tar guztien aurka. Bere lanEAn aldiz, garbi dio Euskal Herriaren independen- lortuta ere bertako ejerzitotik ez duela tzen. Baina badaezpada ere 7.000 er- gora, armaz josirik, oso gustukoak berak.

Txondo, deitu ohi hauten bezala, izate hori hire gogoaren aurka dela nagok, baina egindakoaren ondorena dela halaxe duk.

Legazpiko Herri Batasunak hankasartze itzela izan duela pentsatzen dut. Jokatu dela eta, beste zenbaitzue ere tartean zinegotzi izateari uko egiten zioat, aurkeztuz.

● Iñaki Zubillaga

(Legazpiko HBko zinegotzia)
LEGAZPI (GIPUZKOA)

Zoratu egin zarie

Etsaia indartzen dabezen zak besterik ez dozuez egiten. Itsuak zagozie ala? Ez al dozue Herria suspertzen eta euren aldean jarriten zagoziela?

Ezin dot ulertu zelan izan leikean baldarra ustezko erakunde iraultzaile ENAMren barruan haustura bat dihardozue eta konturatu be ez zarie

● Oier Gorosabel

MARKINA (BIZKAIA)

s e i k o u r r e a

Gorka Knörr**Protagonismo berritua**

Euskal Herriatik urruti eman ditudan egun hauetan, beste heriotza bat eragin dute gu eurek salbaturik nahi izatea ez baina hala ere gu guztiok salbatzen behin eta berriro ari omen diren horiek. Ez hankarik ez bururik duen ekintza horretaz eta antzekoez askok eta askok zer pentsatzen dugun argi eta garbi esana eta adierazia dago aspaldi, ekintzaleei, antza, bost axola zaiela argi eta garbi dagoen bezalatsu.

Azken erailketa hauek, Ermuko haren ondotik etorri diren Errenteria eta Zarauzko zinegotziena hain zuzen, haserre sortu dute herriarrrongan; baina argi dago, tama-

lez, era honetako erailketek gertatzen jarraitzen baldin badute, herria bera aspertuko dela kalera ateratzen, etsipenak jota.

Joan den uztailan Miguel Angel Blanco hil zutenean, sekulako erreakzioa gertatu zen gizartearen baitan; horren lekuko izan ziren, ez bakarrik kale-mobilizazioak, baizik eta Herri Batasunako zenbaiten adierazpenak eta erakunde armatuaren kide eta kide ohi batzuen jarrera, adibidez. Lehengo baten esan nuen bezala, gizarte-haserraldi hura komunikabideek eragindako haserre bat baino askoz ere gehiago zela itsu batek ere ikusteko modukoa baitzen, MNLVko bozeramaileak bestelako interpretazioa saltzeko ahaleginetan ibili eta ibili izan ditugun arren.

Kontua da indarkeriaren aurka dauden guztiek oso irizpide garbiak jaso behar dituztela gizarte honetako agintari eta aitzindariengandik; eta arrisku bikoitz baten aurrean aurkitzen gara. Batetik, irizpideak politikakeriaren menpean erortzekoa, eta, bestetik, indarkeriaren kontrako ekintzak erritualizazio hutsa bihurtzekoa. Hitz baten esateko, indarkeriaren kontrako adostasun minimo eta irmo bat behar dugu, eta adostasun horren adierazpenak eta mobilizazioak ez dira bakarrik atentatuen ondotik gertatu behar.

Espero dezagun ere, fede onez hiruga-

rraren espazioan sinesterraino heldu zirena indarkeriaren babesle diren horien dinamikak eta estrategiaren sareetan berritortzea; ongi da, Ajuria Eneko Hitzarmenak berak literalki jasotzen duen bezala betiere elkarrizketarako ateak zabaltzea. Baina argi dago ENAMekoei goitik behar kontrolatu ezin duten plataformarik ere espazio direlako horiek ez zaizkiela baten interesatzen -hortxe Elkarri-ren adibidez eta honi buruz argi mintzo dira HBko bozeramaileak egun gutxi direla egindako arazpenetan.

Izan ere, indarkeriazaleek ez baitute in-lako asmorik euren ekintzak bertan berro-uzteko, ez eta euren babesleak euren berro-edo halako kobertura ematen gelditzea alderantziz, nahiz eta gutxiagotan atentat-geroago eta gogorrago jotzeko ahaleginet-ibiliko dira, euren lerroetan izan zitezke-epeltasunezko jarrerak geldiarazteko, ha-zuzen. Ez baitiote euren protagonismoa inolaz ere uko egin nahi. Horregatik du-hain zuzen, hain garrantzitsua, zinetan benetan bakearen alde eta indarkeriaren aurka argi eta garbi dagoen herri hon-gehiengoaren protagonismoa. Horret-jabetu dira, ongi jabetu ere, biolentziar-inguruan daudenak, eta horrexegatik du-hain garrantzitsua gure protagonismoa eustea eta beronentzat, irudimenez jokatu-bide berriak urratzea.